Instituto de Salud Pública y Laboral de Navarra
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

# Laneko Osasunaren Informazio Buletina

88 alea / 2022ko azaroa

## Berritasunak







Urriaren 24tik 28ra bitartean, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Europako Astearen beste edizio bat egin zen, EU-OSHAk eta haren erakunde bazkideen sareak antolatua. Aurtengo edizioa ***Lan osasungarriak. Zama astunik ez*** egungo kanpainaren azkena izan da, eta haren helburua izan da arrisku psikosozialeko faktoreek arazo muskuloeskeletikoen agerpenean duten eraginari buruz sentsibilizatzea. EU-OSHAren arabera, zenbait faktorek ekar dezakete horrelako nahasmenduak agertzea, adibidez, lan karga handiegia, lan prekarietatea, jazarpena, gaizki kudeatutako antolamendu aldaketak, komunikazio ez-eraginkorra edo zuzendaritzaren edo lankideen laguntzarik eza

---



**NOPLOIk ikastaro berri bat antolatu du, teknikariei amiantoa aurkitu eta diagnostikatzeko prestakuntza emateko.**

Guztira, 22 pertsonak hartu dute parte ***Amiantoari buruzko UNE 171370-2 arauaren hastapenak. 2. zatia. Amiantoa aurkitu eta diagnostikatzea*** izeneko ikastaroan. Urriaren 28an eta azaroaren 4an egin da, Landabenen. NOPLOIko teknikariek eman dute prestakuntza ekintza hori, eta aparejadore eta arkitektoei, prebentzio zerbitzuetako langileei eta instalazio eta eraikinetan amiantoa duten materialen kudeaketarekin lotutako beste profesional batzuei zuzenduta zegoen. Azaroaren amaieran ikastaroaren beste edizio bat eginen da, eta beste 20 lagunek hartuko dute parte.

## Nabarmendua

**Laneko Arriskuen Prebentzioko Ordezkarientzako Prestakuntza Planeko ikastaro berriak.** Lan Osasunaren Zerbitzuak **hiru prestakuntza ekintza** eginen ditu urteko azken hiruhilekoan, **Laneko Arriskuen Prebentzioko Ordezkarientzako Prestakuntza Plana**ren esparruan eta sindikatuekin lankidetzan. Horietako bi UGT sindikatuak sustatu ditu, eta bestea, berriz, ELA sindikatuak. Plan hori duela bost urte abian jarri zenetik, **961** pertsonak hartu dute parte prestakuntza ekintza horietan, eta horietatik **839**k ziurtagiria eskuratu dute prebentzio figura horren eginkizunak bete ahal izateko.

**ERABAKIA. Osasuna aktibo bat da**

Prebentzio kudeaketaren arloko plangintza eta erabakiak lan istripuak izateko arriskuak saihestera edo ahalik eta gehien murriztera bideratu behar dira. Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan baldintza ezin hobeak bermatzea da beti helburua.







YouTube

***Osasunaren zaintza lantokian* bideoa 10.000 alditan baino gehiagotan ikusi da.**

Osasunaren lantokiko zaintzari buruzko azalpen bideoa **10.000 aldi**tan baino gehiagotan ikusi da, eta informazio zehatza ematen du lan eremuan osasun azterketak egiteari buruz. Ikus-entzunezkoa, Salud Navarraren Youtubeko kanalean dagoena, erabilera libreko tresna bat da, eta oso erabilgarria izan daiteke osasunaren zaintzaren gaia langileei zuzendutako prestakuntza eta komunikazio ekintzetan gehitzeko. Ikusi bideoa.

## Berriak

- El Parlamento insta al Gobierno a acordar con el Consejo de Salud Laboral medidas contra la siniestralidad laboral
  Pamplona actual
- El Gobierno prohíbe por ley preguntar por la salud en una entrevista de trabajo
  Prevención Integral
- 'Kit' para una movilidad laboral segura
  Revista DGT
- La salud psicosocial y los TME están interrelacionados; la investigación explica cómo.
  EU-OSHA
- Un Senado unánime aprueba el fondo para víctimas del amianto
  Diario de Noticias
- El TS fija que la incapacidad de una limpiadora por una lesión en el hombro deriva de una enfermedad profesional
  Europa Press

## Agenda

insst

Web-mintegia
**EVALUACIÓN DE LA EXPOSICIÓN A VIBRACIONES MEDIANTE EL USO DE BASEVRIBA**
CNVM Bizkaia – azaroak 17

- Programa
- Izen-ematea

insst

Web-mintegia
**EXPOSICIÓN LABORAL A POLVO RESPIRABLE DE SILICE CRISTALINA**
CNNT Madril – azaroak 18

- Programa
- Izen-ematea

insst

Web-mintegia
**MOVILIZACIÓN DE PERSONAS**
CNNT Madril – azaroak 22

- Programa
- Izen-ematea

insst

Web-mintegia
**PREVENCIÓN DEL RIESGO QUÍMICO EN EL SECTOR COSMÉTICO**
CNCT Bartzelona – azaroak 28

- Programa
- Izen-ematea

## Argitalpen digitalak




**Siniestralidad laboral de los trabajadores cedidos por empresas de trabajo temporal**
INSST




**Actividades prioritarias en función de la siniestralidad**
INSST




**Informe de accidentes laborales de tráfico 2021**
OIT




**¿Cómo evaluar las vibraciones? Antes de medir ¡Usa basevibra!**
INSST




**Orientaciones para la gestión de los aspectos ergonómicos y psicosociales en situación de teletrabajo**
INSST




**Archivos de Prevención de Riesgos Laborales (Vol. 25)**
APRL

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (NOPLOI) ez du bere gain hartzen argitaraturiko artikuluen eta albisteen edukirik; izan ere, bere horretan hartu dira kasuan kasuan aipaturiko webgunetik, eta ez zaie aldaketarik egin ezta deus erantsi ere. Edozein kontsulta edo iradokizun egin nahi baduzu, edo ez baduzu bidaltzaile honen informazio gehiago jaso nahi, NOPLOIra jo dezakezu, helbide elektroniko honetara ispln.ufii@navarra.es

**ARGITARATZAILEA:**
Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua (Landabengo industrialdea, E eta F kaleak. 31012 Iruña)
☎ 848 423 771
Edizio-formatua:
Fitxategi elektronikoa - 2022ko azaroa